

Teknologia Berrien Batzordea

2014ko urtarriletik aurrera



EUDELek Teknologia Berrien Batzordea **abian jarri** du berriro. Euskadiko udalen arteko lan teknikoa eta koordinaziorako mahai egonkorra da, gainerako erakundeekin eta bestelako entitateekin elkarlanean, EAEko agertoki teknologikoan estrategia bateratua diseinatzeko. Batzordeak informazioaren teknologia berriak (IKT) tokiko administrazioan modu orekatuan eta udalerrri bakoitzari egokituta ezarri, garatu eta ahalik eta ondoen aprobetxatzea du helburu, udalerrri bakoitzak hasiera, baliabide eta beharrei dagokienez daukan egoerara egokituta. Hauek dira elkartearen **helburu nagusietako** batzuk:

- ikuspegi **partekatua sortzea** IKTekin lotutako gaien arazo komuneren aurrean.
- **udal estrategia** osatzea administrazio arteko proiektuetan.
- beste erakunde batzuetan ezarritako proiektu eta ekimenen **ezagutzen transferentzia** sustatzea.
- alderdi teknologiko eta antolakuntzakoetan arrakastatsuak izan diren kasuen bitartez beste udalei **laguntzea**.

Lanerako foroa eta kontsultarako iturri iraunkorra

Batzordearen lanak udalen beharretan du oinarria. Kide aktibo gisa parte hartu nahi dutenentzako lanerako foroa izateaz gain, Batzordea teknologia berrien (IKT) esparruan kontsultarako iturri iraunkor gisa agertzen da Euskadiko udalerrri guztientzat.

a) Kide diren udalak: **Parte hartu nahi duzu?**

Har ezazu parte modu aktiboan udal kide gisa

b) Kide ez direnak. **Zertan lagundu ahal zaitugu?**

Igorri zure kontsulta Batzordeari eta eskatu informazioa zure intereseko gaiaren inguruan.

Harremanetarako: teknologia@eudel.net

Markoa: Administrazio elektronikoa / Tokiko Berrikuntza Agenda (TBA)

Emaitzak bilatzea: interlokuzioa beste administrazio batzuekin, arazo komunak konpontzea, lankidetzako proiektu berriak diseinatzea, praktika onak zabaltzea, euskarriko gidaliburu eta materialak...

Lan esparruak:

1. e-Administrazioa eta herritarren arretarako zerbitzuak (HAZ)
2. Interoperabilitatea eta teknologia berriak

Zer da, zertarako balio du?



- @ Batzordea Eudelek koordinatutako **lanerako mahaia** da, eta Informazioaren Teknologien esparruan bere jarduera gauzatzen duten EAEko udal teknikariek osatzen dute.
- @ Helburua IKTen esparruan interes komunekoa aztertzea, ekimenak sustatzea eta lankidetzako proiektuak diseinatzea da, honako **helburuekin**:
 - Udalerri bakoitzaren errealitateari egokitutako **garapen teknologikoa** bultzatzea (zulo digitala murriztea)
 - Udalen artean baliabide eta plataforma komunak **partekatzea**
 - IKTen **errendimendua** hobetzea eta, horrekin batera, eraginkortasuna eta efizientzia ere prozesuetan eta kudeaketan
 - **Praktika onen eta udal esperientzien** informazioa zabaltzea
 - **Sinergiak** ezartzea udalerrien eta Euskadiko erakunde guztien artean
- @ **Bitartekari teknikoa** izango da, IKTen alorrean Euskadiko udalerrien orainean eta etorkizunean eragin esanguratsua duten edo izan dezaketen erakunde eta administrazioen artean
- @ **Batzordean jorratutako gaiak EUDELeko Batzorde Eragileari jakinaraziko zaizkio**, azken horrek maila politikoko erabakiak hartu eta berretsi ditzan.

Zeintzuk dira bere funtzioak?



Aholkularitza

- **Udal estrategia** osatzea administrazio arteko proiektuetan.
- Udal estrategia prestatzea gai ekonomiko, antolakuntzako eta arautzaileetan, IKTen esparruan Eudelen eta Euskadiko erakunde guztien arteko erakunde arteko harremanen testuinguruan

Ezagutza

- beste erakunde batzuetan ezarritako proiektu eta ekimenen ezagutzen transferentzia sustatzea.

Laguntza

- Alderdi teknologiko eta antolakuntzakoetan arrakastatsuak izan diren kasuen bitartez beste udalei laguntzea.

Nola izan kide:

@ Batzordeko **kide aktibo** izan nahi baduzu, bidali mezu elektronikoa udalerria eta parte hartuko duen udal teknikariaren izena adieraziz, honako helbidera: teknologia@eudel.net

